

ERREAKZIO KIMIKOAK. -ARIKETAK(1-5)

1.-Merkurio (II) oxido berotzean, deskonposatu egiten da, produktu gisa oxigeno gasa eta merkurio metala emanez. %80ko aberastasuna duen oxidoaren 20,5g deskonposatzean, zenbat merkurio metal lortuko da?

Em: 15g Hg.

2.-Oxigenoa (O_2) badago, hidrogeno sulfuroaren (H_2S) errektuntzak sufre dioxidoa (SO_2) eta ura (H_2O) sortzen ditu. Hidrogeno sulfuroaren 18,32g erre dira 40L oxigenoarekin 0,6 atm-n eta 273k-ean neurtuta. Sufre dioxidoaren zer masa eratuko da?

Em: 34,5 g SO_2

3.-Potasio kloratoaren ($KClO_3$) 160g deskonposatuz, potasio kloruroa (KCl) eta oxigenoa (O_2) lortzen dira. Erreakzioaren etekina %85 dela jakinik, potasio kloruroaren zer masa lortuko da?

Em: 83g KCl

4.-Sodio hidroxidotan 0,5M den disoluzioaren 250ml errektzionarazi dira 1,5M den azido sulfurikoaren 50 ml-arekin. Sodio sulfatoaren zer masa lortuko da errektzio horren bidez? Gainerako substantzien zer kantitate egongo da errektzioa amaitzean?

Em: 9,2g Na_2SO_4 ; 2,3g H_2O ; 0,01 mol H_2SO_4

5.-Erreakzioaren etekina %30 dela jakinik, kalkulatu nitrogenoaren eta hidrogenoaren zer bolumen behar den, 1 atm-n eta 273K-ean, baldintza berberetan egongo den amoniakoaren 20,4L lortzeko.

Em: 34L N_2 ; 102L H_2

MASA ATOMIKOAK: K=39; S=32; Na=23; Cl=35,5; O=16; N=14; H=1; Hg=200